



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2019KO URRIAREN 16KO EZ OHIKO UDALBATZA

**NOIZ:** 2019ko urriaren 16an, goizeko 09:00etan

**NON:** Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

**BERTARATUAK:** Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Adur Iburguren Lazkano (EH BILDU)

Beñat Diaz Yañez (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

Manex Saez de Egilaz Larrea (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Anton Elosegi Villanueva (EAJ-PNV)

### **AZTERGAIAK:**

1.- 2019ko Gorte Nagusietarako Hauteskundeen mahaiaren osaketaren zozketa.

### **- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2019KO URRIAREN 16KO EZ OHIKO UDALBATZA

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

### 1.- HAUTESKUNDEAK: GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEEN MAHAIAREN OSAKETAREN ZOZKETA.

Idazkariak Hauteskundeen Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikulua irakurri ondoren, zozketa publikoa egin da, informatika-sistemaren bidez, 2019ko azaroaren 10ko Gorte Nagusietarako Hauteskundeen mahaian egongo den lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko.

Zozketa horren emaitza behar bezala dokumentatua geratu da espedientean.

Udalbatzarrak, hori ikusita, izendapenaren ekitaldi publikoa onartzea erabaki du, eta Hauteskunde-legearen 27.2. artikuluari jarraiki, dagokion eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinaraziko zaio emaitza, baita izendatutako pertsonen ere, hiru eguneko epean.

Horrenbestez, arratsaldeko 09:15 orduak direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2019ko urriaren 16an

O.I.  
ALKATEA,

Idazkaria,